

MENDI TXIRRINDULAZ BI ATERALDI NAFARROAN

Jon Gurutziaga

ERREMENDIA


**AIETXUTIK (690 m.)
ERREMENDIARA (1.388 m.)**

PAR Nafarroako partean eta ekialdeari begiratu Zaraitzu, Aezkoa eta Irati ibarren artean Urraul Goikoa (Tharan galdua ...) dago. Iruñatik irunberrira dagoen errepideari jarraituz (Agoizko errepidetik) Elkoazeko gurutzunearekin topo egingo dugu, haraneko parte finalera ailegatu behar eta hantxe dago Aietxu gure esperoan ... Itzuli honek, ia ia osorik, pistaz egiten dugun arren, abantaila berezi bat eskaintzen digu, hots: urtearen edozein arotan egin daitekeela, Pirineoaren hurbiltasunak bista ederra oparituko digu; Urrauleko paraje edo txoko bereziak gozatzeko parada ere izango dugu.

Km. 0 - 690 m. AIETXU. Herri honen goiko partetik pista bat ateratzen da. Hasiera batean, pista eta erreka parean dabilta.

Km. 1,67 - 700 m. Puntu edo une honetan, pistaren norabidea ezker aldera biratzen da, eta honekin batera pistaren igoera hasten da nabarmenki.

Km. 6,90 - 1.060 m. Hementxe, eta Aritzgaina mendiko harri haundien azpian gurutze baten aurrean aurkitzen gara, gure eskuinetik jarraitu.



Km. 7,40 - 1.125 m. Elkoaz Lepoa; parada ederra zerbait jateko edo edateko, bere belardi ederretik, Pirineoko mendi batzuk ikusi ahal ditugu: Collarada, Pala de Ip, Lecherines, Aspe ...

Km. 8,25 - 1.120 m. Langa batek pista gurutzatzen du (oso langa inportantea da.) Gero, itzultzerakoan leku berberetik pasatu behar izango dugu, bere arriskua du, beraz kontutan hartu.

Km 8,85 - 1.220 m. Bihurgune honek bere ezkerrean aska bat du, horrek esan nahi du daramagun pista utzi behar dugula gure eskuinean dagoen pista hartzeko.

Km. 9,67 - 1.250 m. Lepoa, hona ailegatu-takoan, burdinezko langa bat aurkituko dugu.

Al fondo Aritzgaina

Aukera alternatiboa

Hemen, txirrindulak utzirik mendi tontorra lortzeko, gure aurrean dagoen alanbre-sare zaharraren parean dagoen bideari jarraituko diogu. 25 edo 30 minututan tontorraraino ailega gaitzeko, tontor honetatik paisajea eta Pirineoak ikusteko lekurik onena da, zalantzarik gabe. Erremendiak 1.388 metro ditu.

Km. 9,67 - 1.250 m. Ezkerreko pistari jarraitu beharko diogu, gure eskuinean dagoena ez bait doa inora, eta 80 metrotan bukatzen da. Kaskoa buruan jar ezazu. Hurrengo zatitxoan, pista bidea bilakatzen da, belardi batetik pasatu beharko dugu, eta aurreragoan harriz beterik dagoen pistatik ere. Horra hor norberaren perizia txirrindulatik ez erortzeko.

Km. 11,14 - 1.140 m. Erremendiatik, Borda Arresera doan pistarekin topo egiten dugu; ezkerretara hartuko dugu.

Km. 12,62 - 1.200 m. Gurutze berri batekin topo egiten dugu. 90 gradutan ezker alderantz doan pistari jarraituko diogu, kalitate gutxiagoko pista honek bortu gainera eramango gaitu.

Km. 13,41 - 1.240 m. Langa edo keleta bat gurutzatu beharko dugu.

Km. 13,62 - 1.250 m. Ezkerretik datorkigun pista hartu, alde batetik pistaren trinkotasuna hobea dela bistan dago, aldapa igogerra gogortzen doa.

Km. 14,35 - 1.280 m. Lurrezko pista eskuinera ateratzen denari kasorik ez egin, aurrera!

Km. 14,80 - 1.300 m. Bortu gaina. Gure begiaren aurrean dagoen bista ikustekoa da! ondo gozatu! Oraindik aurrera, beti aldapa behera doa, gorputzak eskatzen duen abidura betetzeko aukera ona, baina kontuz! km. 8,25an dagoen langa berriz gurutzatu beharko dugu; bihurgune itxita pasatu bezain laister dago, arrisku nabaria da, ezta?

Km 25,230 - AIETXU 690 m. ON EGIN!




Otoño y Pirineo

Oharra: Erremendia izenarekin zonalde honetan, bi mendi dago, Elkoaz lepotik eta iparraldeari begiratzuz, gure aurrez aurre dagoena, eta tontorrean "poste geodésico" delako duena.

Txangolariak

JON GURUTZIAGA, HELIODORO PEREZ, MIKEL TEJERINA, IÑAKI TEJERINA



Egileen argazkiak

Con Peña La Raja al fondo





La pista pasa junto al caserío Elxotozain

ULZAMA

ELZABURU-IRAIZOZ-LARRAINTZAR

BOLADA honetan aukeratu dugun zeharkaldiak hiru ezaugarri nabariak ditu. Lehenengoa, itzuli hau egin eta gero mota askotako "pista" dagoela hitz berberarekin ohartuko gara; bigarrena, igotzeko aldapak ez direla gogorak ez antzekoak ere, ondorioz ez dagoelarik prestakuntza haundiren beharrik, eta hirugarrena, pisten trinkotasunak (salbuespen txiki bat neguan izanez agian) edozein urtarotan egitea baimendu digula.

Iruñatik hogeitamar kilometrotara eta Ulzamako haranean Elzaburu herria dauka. Hango beste edozein herri bezala mendien malda dago, honen babespena bilatuz ariko balitz bezala ...

Km. 0 - Errepideak herriko azken puntaraino eramaten gaitu; eta hemen ate berdeko etxearen ondoan errepidea pista bihurtzen da, hauxe da gure abiapuntua.

Km. 0,47 - Une honetan hartzen dugun pista nagusia utzi eta hemendik eskuinetara igotzen den pistari jarraitu. Goiko baserrien pista da. aurrera!!

Km. 1,37 - Hemen pistak biragune txiki bat egiten du, hortik metro gutxitara gaztainondo izugarri batekin aurrez aurre topo egingo dugu ... ikustekoa ezta? gure ondoan dagoen bordak Adategia izena du. Goiko pistari jarraituz baserrira iritsiko gara. Elxotozain

izenekoa da, hemendik metro berberako jaitziera eta igoera bat gure esperoan dago.

Km. 2,45 - Arreta haundiz egon beharko dugu une honetara ailegatzen garenean. Gure pista pagodi txiki batetara sartzen da baina gu ez gara sartuko, baizik eta gure eskuinean dagoen pistari segituko diogu. Zure buruan kaskoa jarri edo ipini! Jaitziera ederra dugu goatzeko, abiadura haundiz hartzeko beharrik izan gabe

Km. 3,68 - Pistak erreka gurutzatzen du, pista berri batera ateratzeko, berriz eskuinetara, erreka daraman uraren norabide berberari jarraituz aurrera goaz.

Km. 4,04 - Pista nagusia utziz, hemendik ezkerretara ateratzen den pistara biratu, hasiera batetan igotzeko aldapa biguna, aurreragoan berriz jaitseko.

Km. 5,35 - Jaitziera hau bukatu baino lehen eta une honetan, langa batek

gurutzatzen du pista, ia ia beti irekita egoten omen da, baina badaezpada kontuz. Langa honen ezkerreko alboan behien granja bat dago (uralita iluneko bi zutoiarte, eta honen ondoan metalezko zilo bat); langa honen eskuineko partean belardi aldapsu bat dago. Hemen aipatutako bi datu horiek garrantzi haundikoak izango dira, geroko aukera alternatiboa bete nahi badugu.

Km. 9,65 - Gure pista Iraizoz izeneko herrira ailegatzen da, atsedenaldi txiki bat hartzeko agian aukera ederra. Topatu izan dugun errepidearekin eskuinera segitu beharko dugu. Hurrengo gurutzunean Larraintzar herriko norabidea hartu ta gero zubi gainetik pasatuko gara.


Km. 10,7 - Azken txaletera iristean, errepidea utziz txaletetik eta eskuinetara ateratzen den pistari jarraitu. Hemendik eta hurrengo puntu artean Km. 11,10 eta Km. 12 dauden ezkerreko desbideraketeki kasorik ez egin, gu zuzen zuzenean eta metro bat ere jeitsi gabe.

Km. 13,40 - Puntu honetan gure aurrean borda baten haga edo enbor erretako ezkerretik pasatuko gara.

Km. 13,70 - "Y" moduko gurutzunean gaude, Larraintzarrerako bidea gure ezkerrean dago, jeitsiera ederra, borda ondodetik pasa eta segi aurrera ...

Km. 15 - Aldapa txiki bat igo eta gero azken gurutzera ailegatzen gara. Gure aurrean borda bat eta bere ondoan txabola txiki bat dago. Honek bere atearren gainean axuleioz 15 zenbakia margotuta dauka. Guk ezkerreko norabidea hartuko dugu, ondorengo kilometroetan eta presakarik gabe haraneko bista ederrez goatzeko aukera polita izanen dugu.

Km. 19,2 - Larraintzar, hemendik kotxea utzi dugun lekura 5 km ditugu.



Aukera alternatiboa

Abentura eta intuizioa zure lagunak baldin badira, Larraintzar herritik pasatu gabe ba dago aukera. Aipatu beharrekoa da (gure ustez) halako aukera ez dela erreza ezta zailegia ere, eta iparhorratza eramanez gero laguntza estimagarria izanen da.

- 1.- Km. 13,70 - "Y" moduko gurutze hone-tan eskuineko bidetik segi.
- 2.- Geroago pista hori (belar motzeko pista) bide bilakatuko da eta horrekin batera aldapa igotzen hasiko da.
- 3.- Aurreragoan, bide honek, gure ezkerretik datorren aintzineko pista batekin topo egingo du.
- 4.- Gurutzatu pista hori eta laister harizti baten barrura sartuko gara.
- 5.- Agian zure intuizioak, lurrean erdi estalita dagoen antzeko bide bat ikusiko du; dena den hori ez balitzaizu gertatuko, tontorrek norabidea hartu beharko zenuke.
- 6.- Tontorraren ondoan (Gurbil 722 m.) egotean iparhorratza atera eta honek erakutsi diozun iparreko bideari jarraituz gero inolako problemarik gabe 5,35 kilometrotan aipatu dugun belardira aterako zara.
- 7.- Barrura sartzeko eta handik ateratzeko ere, alanbre sare bat gainditu beharko dugu, KONTUZ
- 8.- Belarditik pistara pasatzeko errekatxo bat gurutzatuko dugu.
- 9.- Lehen aipatutako langara ailegatuko gara, hemendik eta ezkerreko norabideari jarraituz 3,5 kilometro gelditzen zaizkigu, herriraino.
- 10.- Tontorretik ezkerregiko norabidea hartuko bagenu, aipatutako belardira doan pista batetara iritsiko ginatke.
- 11.- Alderantziz, eskuinegiko norabidea hartuko bagenu, aldapa jeitsi ta gero, pagodiaren barruan dagoen errekatxo batekin



Se cruza el río y se gira a la izquierda

topo egigo genuke. Hau gurutzatu eta pistara atera ondoren.

12.- Ezkerreko norabide segitu.

13.- Lehen aipatutako 4,04 kilometroko gurutzeraz berriz ailegatu-garenean ezkerreko norabidea hartzea tokatuko zaigu. Elzaburu herrira iristeko.

Txangolariak

JON GURUTZIAGA,
MIKEL TEJERINA.

RESUMEN

DOS RECORRIDOS POR NAFARROA EN BICI DE MONTAÑA

EN la montaña media navarra existen una serie de montes y sierras de mucho interés, y que son menos conocidas por los montañeros de los otros herrialdes que frecuentan el Pirineo navarro y les resultan familiares las sierras de Urbasa y Aralar. Por ejemplo, las sierras de Areta, Zarikieta o Labia ofrecen muy variadas alternativas, entre otras, para la bici de montaña.

En este artículo se relatan dos recorridos sencillos visitando unos parajes muy hermosos. El primero, por el Urraul Alto, entre los bosques de hayas de las dos cimas del Erremendia, supone 25 Km. con un desnivel total de unos 700 m, con el Pirineo como telón de fondo. El segundo es más corto y más suave. Son unos 20 Km con un desnivel total de unos 200 m, por pistas a través de las verdes campos del valle de la Ulzama, recomendables para recorrer en cualquier época del año.



Egileen argazkiak

El pequeño bosque de hayas, en el que no se entra

